



## ITSASPEKO BIHOTZAK

### Haur literaturaren bidez hezkidetzaz lantzeko aretoa

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun eta Euskara Zerbitzuek eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek haur literaturaren bidez genero-berdintasunean hezteko erakusketa eta tailerrak antolatuko dituzte abenduaren 2tik 19ra bitartean.

Aretoa hau erabat berritzailea da, ez baitago haur literatura baliatuz genero-parekidetasuna lantzen duen besterik. Idatziko eta ahozko literaturaz gain, besteak beste, ilustrazioak, musika, ikus-entzunezkoak eta eskulanak tartekatzen dira. Sei gune egongo dira, eta bakoitzean eduki bat landuko da. Gune horietatik egingo den literatur ibilbidea, *Sexismorik gabeko irla* gunean amaituko da.



Erakusketa abenduaren 2tik 19ra egongo da ikusgai, Altsasuko Iortia kultur guneako erakusketa aretoan.

- ✓ Astelehenetik ostiralera: 18:30etik 21:00etara.
- ✓ Ikuskizunak dauden larunbatetan: ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.
- ✓ Igandeetan: 19:00etatik 21:00etara.

Familiarteko saio bat egingo da abenduaren 12an, 17:00etan. Izen-ematea abenduaren 9a baino lehen egin behar da honako e-posta hauetara idatziz: [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) edo [euskara@sakana-mank.eus](mailto:euskara@sakana-mank.eus)

Goizetan, ikastetxeekin adostutako ordutegian, saio gidatuak eta tailerrak egiteko aukera eskaini zaie Sakanako ikastetxeei, zehazkiago, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei.

Haur literaturako bibliografia zabala banatuko areto literario honetan. Liburu guztiak euskarazkoak dira. Literatur genero ezberdinak aukeratu dira (album ilustratuak, narrazioak, ipuinak...), guztiak ere genero berdintasunaren inguruko alor ezberdinak lantzen dituztenak. Hautaketa Sakanako Mankomunitateko euskara eta berdintasun zerbitzuak egin dute.



Haur literatura gure errealitate sozio-kulturalaren isla da. Gizartean dagoen sexu zein genero bereizkeria jaso eta arrakasta handiz zabaltzen dituzte estereotipoak literatur lanek. Izan ere, umek berehala barneratzen dute irudietan zein testuetan datorren informazioa, askotan liburuaren garapenarekin zerikusirik ez badu ere. Neska eta mutilendako bide desberdinak, eta, areago, kontrajarriak planteatzen dizkigute liburuak maiz. Baina literatura sexista batek jendarte sexista elikatzen badu, jendarte parekide batek literatura parekidea behar du. Horiek horrela, Galtzagorri elkarteak *Itsaspeko bihotzak* izeneko aretoa sortu du eta haur literaturan genero-berdintasunaren gaia ikuspuntu ezberdinetatik jorratzen dituzten liburuak aitzakia hartuta, eszenografia oso bat gauzatu du, musika, ikus-entzunezkoak, ilustrazioa eta abar uztartuz. Xedea da umeen irudimenean —eta, bidenabar, hezitzaile zein eta gurasoen begiradetan— hausnarketa piztea emozio eta sentazioen bitartez.

Aretoa 6 gunetan egongo da banatuta eta gune bakoitzean honako gaiak landuko dituzte:

1. Gunea: gorputzak eta identitatea.
2. Gunea: rola, estereotipoak eta lanbideak.
3. Gunea: etxeko-lanak eta zaintza-lanak.
4. Gunea: emozioen heziketa.
5. Gunea: maitasun erromantikoaren mitoarekin apurketa.
6. Gunea: genero berdintasuna.

Helburuak:

- ✓ Literatura hezkidetzaillea ezagutaraztea ume zein helduei.
- ✓ Haurrengan euskarazko irakurtzeko zaletasuna sustatzea.
- ✓ Haurrak genero-berdintasunean sentiberatzea.

Aretoaren *making offa* eta txoko bakoitzeko dinamika erakusten duen bideoa:

<http://youtu.be/kUXrwghA8VE>

